


EBAZPEN PROPOSAMENA

Gaia: GRAK-ari gazte eta kultur eragileentzako espazio autogestionatuaren (Gaztetxearen) emakida espazioaren lagapena

Ikusirik 2026ko uztailak 6ko alkatetzaren probidentzia, non adierazten den Udal honek interesa duela Aldamar kaleko 3 zenbakidun eraikinan kokatutako udal-ondasuna lagatzeko, haren erabilera G88992177 IFZ-dun GETARIAKO GRAKA UNDERGROUND MUSIKA ELKARTEA (aurrerantzea GRAKA) irabazi- asmorik gabeko erakundeari lagatzeko modalitatean, ekintza sozio-kulturaletako helbururako.

Udal Idazkaritzak ziurtagiria eman du ondasun higigarria Udalaren titulartasunekoa dela eta Udal Ondasunen Inbentarioan inskribatuta dagoela adierazteko, xehetasun hauen arabera:

- Helbidea: Aldamar parkea, 3.
- Azalera eraikia: 270,73 m²
- Planoa:



Udal idazkaritzak egindako txosten juridikoa ikusi da, zeinak prozedura juridikoari buruz informatu duen.

Udaleko kontu-hartzailtzak egindako txostena ikusi da, zeinak ziurtatzen duen ez dagoela zorrik likidatzeko udal aurrekontuaren kargura ez eta ez duela gasturik suposatzen honako lagapen honek udal aurrekontuaren kargura.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen (APEL) 145. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa kontuan hartuta bai eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109. artikulua eta hurrengoak.


Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 110. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 22. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, 47.2.ñ) artikuluen edukiari dagokionez.

Alkatetzaren proposamenez eta Idazkaritza eta Kontuhartzailtzaren txostenekin bat etorritz, eta 2026ko uztailak 14ko ahobatez onartutako Batzordearen irizpena ikusita, Udalbatzarrari **ERABAKI-PROPOSAMENA** egiten da:

Lehenengoa.- GETARIAKO GRAKA UNDERGROUND MUSIKA ELKARTEA (IFZ: G88992177) irabazi asmorik gabeko elkarteak, Aldamar parkea, 3 helbidean dagoen eraikin publikoan, (azpian dagoen planoan oinarrituta) baimendutako espazio konkretuan garatu nahi duen proiektuaren helburuak herritarren onura publikorako direla adieraztea.

Plano aldaketarekin onartzen da irizpen hau→ Azalera hauek erabili

- Kultur espazioa: 140m²
- Entseilu gelak: 35m²
- Bientzako espazioak:
- Sarrera+komunak: 36m²
- Instalazio gela: 9m²



Eraikina baimendutako erabilerarako ez bada erabiltzen edota behin lagapenaren iraupena bukatuta (15 urte igarota) eraikinaren erabilera Udalari itzuliko zaio.

Bigarrena.- GETARIAKO GRAKA UNDERGROUND MUSIKA ELKARTEA irabazi asmorik gabeko elkarteak Aldamar parkea, 3 helbideko eraikinean garatu nahi duen proiektua egiteko eraikinaren planoan azaldutako zatiaren erabilera dohainik lagatzea onartzea. Beraz, jabetza ez da lagatzen, baizik eta haren erabilera bakarrik, betiere lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta eta 15 urteko iraupenarekin.

Eraikina baimendutako erabilerarako ez bada erabiltzen edota behin lagapenaren iraupena bukatuta (15 urte igarota) eraikinaren erabilera Udalari itzuliko zaio.

Hirugarrena.- GETARIAKO GRAKA UNDERGROUND MUSIKA ELKARTEA irabazi asmorik gabeko elkarteak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu beharko du, non elkartearen jarduera babesteaz gain, jarduera horrek elkartearen ondasunei edo hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteak estaliko lituzkeen.

Laugarrena.- Lagapen honen espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena, udaleko ediktuan eta bestelako ohiko lekuetan, hogeitun eguneko, dagozkien alegazioetarako (39/2015 Legeko 83.2 artikulua).

Epe hori amaitzen denean, alegazioen bat aurkeztuko balitz Udal Osoko bilkurak emango luke horren inguruko ebazpena; alegaziorik egon ezean, lagapena behin betikoz onartutzat joko da.

Bostgarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabaki honekin erlazioa duten agiri guztiak sinatzeko.

Sinatzailea:	Alkatea Haritz Alberdi Arrillaga	
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/39/AAAABHNEB.yrSk		